

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Harrizkoa zara

HARRIZKOA ZARA,
 Irribarrezko harri
 triste t'otzekoa.
 Elorrian zagoz.
 Irribarrezko triste
 irribarrezkoa.

=====

EGITAN, IRUDI ZARA
 asmotan, egia;
 geure irudi zarean
 harrizko irudia.
 Zeugan aurkitu dogu
 geure antzeko lagun
 samin ta pozduna.
 Lurraren arreba dan
harri egin zara.

Bitoriano Gandiaga

Bitoriano Gandiagak, gazte zelarik, Arantzazuko Andre Mariaren irudiaren bere aurkikuntza egin zuen, behinola Errodrigo Baltzategikoak bezalaxe. Eta hunkituta utzi zuen.

Garaia batean Andre Mariaren irudia, elorri eta guzti, estalita zegoen mantu dotore zabalez gain-jantzita, zilarrezko kamarin distiratsuan, aureola-koroi handi eta guzti, eta haurra ere koroatua; horrela ezagutu zuten XVIII. mendearen erdialdetik 1963ra arte Arantzazuko fraideek eta erromesek; urte horretan egin zuen Luzio Muñozek kamarin berria, abside berriari egokitua, eta gain-jantzirik gabe koroak kenduta, bere harrizko biluztasunean geratu zen irudia, harrizko jantziaren tolestura finekin, elorri latzaren gainean.

Hori izan zen 1963an. Baina hamabi bat urte lehenago horrelaxe ikusia zuen Gandiagak. Hona nola kontatzen digun bere aurkikuntza: "Orduan Amabirjina trapu artean jantzita zegoen, burua bakarrik agerian eta koroetzar zilarrezko batekin hura ere. Asko gorensten

zer argi eta zilar artean eta mantu handi eta perlaz jantzitakoen barruan ikusten genuen Arantzazuko Andre Mariaren irudia. Batzuk zerbait bizia edo zeruzkoa edo ikusi bide zuten, beren hitzen bidez adierazten zuten. Nik ostegunetan -bazterren garbiketa egin behar genuen egunetan- Amabirjinaren kamarinera osteratxoa egiten nuen, ahalik eta gertuenetik ikusteko. Hainbeste zapi artean ageri zen apurra, amaren eta semearen musu eta eskutxoak ziren, eta politikak ziren arren, ni harrizko ikusten nituen eta hala kantatu, norbaitzuen aprobazio handiagorik gabe, jakina, Andre Mari hura harrizko zela behin eta berriz errepikatuz" ("Izendatu didazuen gaia" hitzaldia, in Hegats 4 (1991) 210 or.).

Dozena erdi bat olerki behintzat eskaini zizkion harrizko Andre Mari irribarretsuari, zein baino zein txeratsuagoak: "Arantzazu harri da / eta harri zara zu / samur eta irribartsu..." harrizko elizan.